



EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA BASQUE COUNTRY SURFING FEDERATION

DECATHLON EUSKALSURF SURFING ZIRKUITUA 2024

- **EZAUGARRIAK**

○ **Egutegia:**

- Apirilak 27-28, Zurriola.
- Irailak 21-22 + EH TXAPELKETA, Sopela.
- Azaroak 2-3/9-10/16-17/23-24/30-abenduak 1, La Arena.
- Azaroak 30-Abenduak 1 / abenduak 7-8/14-15/21-22, Mundaka.

○ **Zirkuituko ezaugarriak:**

- Zirkuitu bateratua:
 - Zirkuitu bakarra 2 kategorietan:
OPEN GIZONAK
OPEN EMAKUMEA
 - Zirkuitu irekia.
- Froga ospatu ahal izateko 24 parte hartzaile baino gehiagok gauzatu beharko dute izen ematea kategoria guztiak gehituta. Gutxieneko hau bete ezean txapelketa bertan behera geratuko litzateke.
- Kategoria bakoitza ospatu ahal izateko gutxieneko parte hartzaile kopurua gizonetzkoetan 12koa izango da, eta emakumezkoetan 6koa.

○ **Lehiaketa sistema:**

- Kanporaketa bidezko lehiaketa.
- Egun batean edo bitan lehiatuko da: Larunbatean edo/eta igandean.

○ **Zirkuituko sailkapen sistema:**

4froga izango dira (Zurriola, Sopela, La Arena, Mundaka):

- Lau emaitzak hartuko dira kontutan.
- Azken frogako emaitzak balio bikoitza izango du.
- Sopolako froga EUSKAL HERRIKO SURF TXAPELKETA izango da zirkuituko froga izateaz gain. Frogako lehen Euskal sailkatua Euskadiko txapelkun izango delarik.

Zirkuituko lehen bi frogak irekiak izango dira (Zurriola, Sopela) . Hala ere hondartzaren ezaugarriek, mareak edo eta argi orduak txapelketa bakoitzeko iraupena baldintzatu dezakete honekin batera parte hartzaileen kopurua ere mugatu daitekeelarik.

Premio Euskadi del deporte 2002 a la entidad deportiva
Premio Cultural Award ASP 2.003



EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA BASQUE COUNTRY SURFING FEDERATION

La Arenako froga irekia izango da, baino surflari kopuru mugatu batek baino ezingo du parte hartu.

Mundakako frogan izena emateko gutxienez 2024ko zirkuitu bereko froga batean parte hartzea beharrezkoa izango da.

La Arenako frogarako sailkapena horrela gauzatuko da:

- GIZONAK: 2024 zirkuituko rankingaren arabeko seedingaren TOP 24
- EMAKUMEAK: 2024 zirkuituko rankingaren arabeko seedingaren TOP 12.

Mundakako azken frogarako sailkapena horrela gauzatuko da:

- GIZONAK: 2024 zirkuituko rankingaren arabeko seedingaren TOP 9 + MST elkarte lokaleko wildcard 1 + GAZTE zirkuituko lehen sailkatuarentzako wildcard 1 (-18 kategoria) + wildcard 1 zirkuituko babeslearentzat.
- EMAKUMEAK: 2024 zirkuituko rankingaren arabeko seedingaren TOP 5 + MST elkarte lokaleko wildcard 1 + GAZTE zirkuituko lehen sailkatuarentzako wildcard 1 (-18 kategoria) + wildcard 1 zirkuituko babeslearentzat.

***** Parte-hartzaile guztiek wildcard-ak barne gauzatu beharko dute izen ematea aurre ikusitako epe eta bidearen arabera ordainketa barne.**

***Aurreikusitako TOPak osatuko ez balira, wildcardetako bat faltako balitz edo Gazte zirkuituko wildcardak jada Open zirkuituan sailkaturik aurkituko balira, antolakuntzak erabakiko luke txanden koadroak antolatu edo betetzeko modua.

- Itxarote zerrenda (Mundaka): Parte hartzaileen zerrenda egingo da **zehaztutako epe eta bidea jarraituz izena emandakoen artean 2024ko zirkuituaren arabeko seedinga gauzatuz**, txanden koadroak osatuko dira aurre ikusitako TOPEkin eta EHSFko kanaletan publikatuko dira.

Txandetan sartu ez diren baino izen ematea behar bezala gauzatu duten parte hartzaileak automatikoki itxarote zerrendan egotera pasatuko dira aurrez definitutako seedingaren ordenaren arabera.

Txapelketako lehenengo errondan itxarote zerrendako parte hartzaileak hutsuneak betetzen joango dira orden berdina jarraituz. Behin txapelketa bukatuta, itxarote zerrendan zeuden baino parte hartzerik izan ez duten surflariei izen ematearen ordainketa bueltatuko zaie.

***Froga egunean izen ematea edo eta ordainketa gauzatzea onartezina izango da.



EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA BASQUE COUNTRY SURFING FEDERATION

○ Diru sariak:

- Zirkuitu osoa: 9.000,00 €
- Zirkuituko froga bakoitza: 2.240,00 €

***Sariak berberak izango dira bi kategorietan (Gizonak eta emakumeak)

- Diru sariak eskuratu ahal izateko beharrezkoa izango da parte hartzaileak behintzat txapelketako erronda bat gainditzea. Horrela ez balitz, taulan aurreikusitako saririk ez litzateke banatuko finaleko partaideak salbuespen izanda.

	OPEN GIZONAK		OPEN EMAKUMEAK
1 ^o	380,00 €	1 o	380,00 €
2 ^o	270,00 €	2 o	270,00 €
3 ^o	180,00 €	3 o	180,00 €
4 ^o	120,00 €	4 o	120,00 €
5 ^o	50€ x2 100,00 €	5 o	50€ x2 100,00 €
7	35€ x 2 70,00€	7 o	35€ x 2 70,00 €
	1.120,00€		1.120,00 €

OHARRA:

Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru dekretuei jarraikiz diru sari guztiek %15ko atxikipena izango dute.

○ Seeding 2024:

- Lehen froga (Zurriola): 2023ko zirkuituko sailkapenaren arabera.
- Bigarren froga (Sopela): 2023ko zirkuituko sailkapenari 2024ko zirkuituko sailkapena gehituko zaio (Zurriolako froga).
- Hirugarren froga (La Arena): 2024eko zirkuituko sailkapenaren arabera (Zurriola eta Sopela frogak).
- Laugarren froga (Mundaka): 2024eko zirkuituko sailkapenaren arabera (Zurriola, Sopela eta La Arena frogak).

Txandak froga bakoitzeko seedingaren arabera antolatuko dira.

Premio Euskadi del deporte 2002 a la entidad deportiva
Premio Cultural Award ASP 2.003



EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA BASQUE COUNTRY SURFING FEDERATION

- **Izen emateak:**

Epea:

Froga aurreko **astelehenean (24:00h PM) itxiko dira.**

Mundakako azken proban parte hartu nahi duten guztiek izena eman behar dute ezarritako epe eta moduan; 2024 rankingean oinarritutako seeding-aren arabera TOPean sartzen direnak eta wildcardak barne.

Arazo informatiko edo eta akatsen bat izango balitz izen ematean parte hartzaileak idatziz (email bitartez) jakinarazi beharko dio federazioari honekin batera arazoaren frogak atxikituz (akatsaren pantaila-argazkia edo ordaintze sistemaren agiria) izen emate epearen biharamunaren 14:00h baino lehen (froga aurreko asteartean).

Erreklamazioa ezarritako epean eta moduan egiten ez bada, parte-hartzaileak proban izena emateko eskubide guztia galduko du.

Itxaronaldi epea duen frogetan edo baldintza egokirik izan ez delako atzeratu behar izan denetan, txapelketa egingo den hala ez jakinaraziko du antolakuntzak, froga egin aurreko **asteazkenean.**

*** Antolakuntzak argi berdea ematea edo, aitzitik, txapelketa atzeratzea erabakitzen duenerako, parte-hartzaile guztiek izen ematea gauzatua izan beharko dute aurre ikusitako epe eta bidearen arabera, hau da; froga ospatu aurreko astelehenean (24:00h PM itxiko dira).**

Atzerapena gertatuz gero, izena eman duten parte-hartzaileek inskripzio horri eutsiko diote, eta berriro irekiko da parte-hartzaile berrientzako izena emateko epea frogaren aurreko astelehenera arte. Eta horrela hurrenez hurren.

Froga batean izena eman eta atzeratu beharragatik parte hartuko ez duten parte-hartzaileek (ezinbesteko kasuetan izan ezik, antolakuntzak baloratu beharko du) emailaz jakinarazi beharko diote federazioari, izen-emateak itxi eta hurrengo eguneko 14:00ak baino lehen (probaren aurreko **asteartea**), izen-ematearen zenbatekoa itzultzeko eskatuz. Une hori igarotakoan, zenbateko hori erreklamatzeko aukera galduko da.



EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA BASQUE COUNTRY SURFING FEDERATION

Zenbatekoa:

35 €

Baldintzak- Izen emateko modua:

EHSF web gunean: euskalsurf.com.

- EHSFkoak ez diren lizentziak: Izen emateak egiterako orduna, web gunean erantzi behar izango da lizentzia. Ez bada eransten ezin izango dira lehiatu.

○ **Zigorak:**

Froga ospatzen den bitartean txandaz kanpoko beste parte hartzaile batek (gainontzeko kategoria batean parte hartuta ere) lehiaketa oztopatuko balu eta identifikatu eta ohartarazpenari kasu egingo ez balio dagokion zirkuituko ondorengo bi frogetan parte hartzea debekatuko litzaioke.

Txapelketa baterako izen ematea gauzatu duen parte hartzaile bat **bertaratuko ez** balitz, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik (antolakuntzak baloratuko luke), dagokion zirkuituko ondorengo frogan (edo hurrengo urtekoan) parte hartzea debekatuko litzaioke.

Froga batean izena eman eta atzeratu beharragatik, edo beste motibo batengatik, parte hartu nahi ez duten parte-hartzaileek, emailez jakinarazi beharko diote federazioari, izen-emateak itxi eta hurrengo eguneko 14:00ak baino lehen (frogaren aurreko asteartea).